



PROWEIN 2019

Düsseldorf, Alemania

Informazio gehiago:

María Fernández de Romarategui
945 14 18 00
internacional@camaradealava.com

Data: 2019ko martxoaren 17tik 19ra arte

Tokia: Düsseldorfeko Azoka Esparrua

Maiztasuna: Urterokoa

Norentzat: mahastizaintza eta ardogintza
industriako profesionalak

Izen-emateko epea: 2018ko ekainaren 29a

Azokaren webgunea: www.prowein.com

DEIALDI HONETAN:

Azokaren izaera

Parte hartzeko baldintzak

Parte hartzeko eredia eta kostua

Eusko Jaurlaritzarekin parte hartzea

Eskainitako zerbitzuak

Izena emateko formularioa

Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailak, Elikaduraren Euskal Industria kanpoan sustatzen laguntzeko jardueren barruan, **PROWEIN 2019** azokan Euskadiko enpresen baterako parte hartzea antolatu du

HAZI Fundazioaren bitartez. PROWEIN, Ardo eta Edari Nazioarteko Europako Azoka garrantzitsuena da eta Düsseldorf-eko Azoka Esparruan ospatuko da **martxoaren 17tik 19ra arte**.





PROWEIN 2019 azokaren izaera

Erakusteta eremua: 68.000 m² baino gehiago

Erakusketariak 2018an: 6.670 enpresa 64 herrialdekoak

Bisitariak 2018an: 60.560 profesional 133 herrialdekoak

Azokaren webgunea: www.prowein.com

AZOKAREN IZAERA

Alemania izan zen munduko herrialdeen artetik 2017an bolumenean ardo gehien inportatu zuena eta hirugarrena balioan. Hiru herrialde hornitzaile nagusienek (Italia, Frantzia eta Espainia), inportazioen balioari dagokionean, merkatu kuotaren %77 inguru banatzen dute: Italiak %35, Frantziak %27 eta Espainiak %15.

Esportazio espainiarren hartzaile nagusia 2017an Alemania izan zen, 391 milioi euroko balioarekin. Bolumenari dagokionez, guztira 3,82 milioi hl esportatu ziren eta batez besteko balioa 102 €/hl-koa izan zen. 2017an ikusitako joerek adierazten dute Alemaniak jarraitzen duela izaten gure merkaturik funtsezkoena eta ardo bezeroen artean garrantzitsuena.

Prowein sendotu egin da Europako azokarik garrantzitsuen eta esanguratsuen moduan, eta munduan dauden ardo eta beste edari alkoholodun batzuen ekoizlerik garrantzitsuenak ditu bere erakusketarien artean. ProWein azokan 2017an %2,6 handitu da erakusketari kopurua eta %3,5 bisitariena, iazko datuekin alderatuta.

Azoka profesionalei zuzenduta dago eskusiboki, eta bertara doazen bisitariak banaketa kanal guztietako erosle adituak dira (handizkariak, ostalaritzako industria, catering-a, txikizkari espezializatuak, inportatzaileak, banaketa kate handiak, etab.)

EUSKADI BASQUE COUNTRY STAND-a

Eusko Jaurlaritzak PROWEIN 2019 azokan **290 m²**-ko gunea izango du parte hartzeko interesa duten **Euskadiko Mahastizaintza eta Ardogintza Industriako enpresentzako**, stand indibidualetan edo stand partekatuetan. Standa Azokako **10. Pabiloian** kokatuko da.

Eusko Jaurlaritzako espazioa mugatuta izango da, stand-ak gehienezko enpresa kopurua hartuko du. Enpresa gehiagok erakusten badute interesa, hautaketa **izena emandako hurrenkera zorrotzaren** arabera egingo da.

Azokaren ORDUTEGIA: 09:00etatik 18:00ak arte

ERAKUSKETA eremua: 68.000 m² baino gehiago

ERAKUSKETARIAK 2018an: 6.670 enpresas 64 herrialdekoak.

BISITARIAK 2018an: 660.560 profesional mundu osokoak, 133 herrialdekoak.



Azokan parte hartzeko baldintzak

Parte hartzeko konpromisoa EAEn egindako produktuak Ebaluazio-inkesta

Ekitaldian parte hartu ahal izango dute egoitza Euskal Autonomia Erkidegoan duten enpresa produktoreek, Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailaren Elikadura Industrien Erregistroan izena emanda badaude.

Azokaren aurretik

- Enpresaren ordezkari baten aldetik joateko konpromisoa eta kuota ordaintzea; beraz, **EAEko standean sartuko dela jakinarazten denetik ezingo da ekitaldian baja eman**. Halabeharrezko kasuetan baino ez, Eusko Jaurlaritzak eskubidea erreserbatzen du enpresak aurkeztutako arrazoiak baloratzeko eta, behar bada, ordaindutako zenbatekoaren ehuneko bat itzultzeko.
- Azoka irekitzeko bezperan, esaten zaien orduan, enpresak derrigor egon behar dira merkantzia jasotzeko, eta beraien erakustokien dekorazioa amaitzeko, jardunaldia hasi baino lehenago.

Azokan zehar

- Azokan **Euskal Autonomia Erkidegoan fabrikatutako produktuak** baino ezingo dira erakutsi. Ezin izango da, inola ere, beste Autonomia Erkidego batzuetako produktuak aipatu, ezta aurkeztu ere.
- Standetan azokako egun guztietan eta zabalik dagoen ordu guztietan eman behar da arreta.

Azokaren ordutegian zehar enpresaren batek bere stand-a utzik utziko balu, arreta gabe eta salbuespenezko zergati gabe, hurrengo edizioan lehentasuneko eskubideak galduko lituzke (izen-emate orduan, etab...). Kasu honetan enpresa horren eskaera kontutan hartuko litzateke soilik baldin eta, izen-emate eta ordainketarako jarritako egunen barruan egindako inskripzioak egin eta gero, leku librean egongo balitz.

Halaber, enpresa batek edota hainbatek stand bat utzik uzteak Eusko Jaurlaritzari, antolatzaile den bezala, azokako antolatzaileek santzio ekonomikorik sortuko balio, berehala arazoa sortu duen enpresari/enpresei bideratuko zaio berbera.

- Azoka amaitzerakoan produktu guztiak behar bezala jaso behar dira eta standeko elementuak entregatu, jaso ziren egoera berberetan.

Azokaren ondoren

- **Ebaluazio galdetegia** antolakuntzaren jarraibideekin bete eta entregatzea.



Azokan parte hartzeko eredua eta kostua

PARTE-HARTZE EREDUA

Eusko Jaurlaritzaren standean, Euskadiko elikagaien industrian kalitatezko ardoak (JDko ardoak), JDko txakolinak edota beste edari alkoholduen batzuk ekoizten diharduten enpresek izango dute lekua.

Merkatu alemaniarrak gure esportazioentzako duen garrantzia kontuan hartuta, Eusko Jaurlaritzak jarduerari laguntza handia ematea erabaki du eta **parte hartze-ko bi era** proposatzen ditu:

Stand INDIBIDUALA eredua

Stand PARTEKATUA eredua (enpresen artea berezi gabeko gune komuna)



PARTE-HARTZE KOSTUA

ProWein 2019 azokan parte hartzeak honako kostua izango du:

Stand Indibiduala: **2.100 € + % 21 BEZ = 2.541 €**

Stand Partekatua: **1.050 + % 21 BEZ = 1.270,5 €**

GARRANTZITSUA:

Espazio mugak direla eta, **bermatutako banakoen stand kopurua 14koa** izango da. Banakoen standen esleipen kopurua gaituz gero, mota hauetako standak espazioaren eskuragarritasunari lotuta egongo dira, dataz eta formaz izena eman duten enpresa guztien presentzia bermatu ondoren.

Banakoen standen esleipena izen-ematearen hurrenkera zorrotz jarraituta egingo da eta, horretarako, ordain-agiria bidaltzea ezinbestekoa izango da.



Eusko Jauriaritzarekin parte hartzea

Izen-emate formularioa

Ordainketa agiria

Izen-emate epea: 2018ko ekainaren 29a

Leku kopurua mugatua denez, gomendatzen dugu lehenbailehen izena emateko formularioa betetzea eta ordainagiria bidaltzea zinpeko deklarazioarekin batera **internacional@camaradealava.com** helbide elektronikora.

Enpresa parte hartzaileen hautaketa izena emateko dokumentuak jasotzeko hurrenkeraren arabera egingo da.

IZEN-EMATE FORMULARIOA BETE



Formularioan eskatzen den informaziotik, datuak zehazki transkribatuko dira azokaren katalogo ofizialerako eta prestatzen diren gainerako elementu promozionaletarako.

ORDAINKETA AGIRIA BIDALI

ontu zenbakia: **ES49 3035-0179-61-1791069900** Laboral Kutxa HAZI Fundazioaren izenean

Kontzeptua: "Enpresaren izena + PROWEIN 2019"

HAZI Fundazioko Finantza Departamentuak dagokion zenbatekoaren faktura igorriko du, izena emateko epea amaitu eta parte hartzea baieztatu eta gero.

Izena emateko epea: **2018ko ekainaren 29a**



Eusko Jaurlaritzarekin parte hartzea

Izena ematearen formalizazioa Parte hartzeari uko egin

IMPORTANTE: Izen ematea formalki egindakotzat jotzeko, **ESKATUTAKO DOKUMENTU GUZTIAK bidali behar dituzue, eta izena emateko data gisa, ondorio guztietarako, izena ematearen ordainketaren data agertuko da.**

Eskatutako dokumentuak bidaltzeak EZ DU ESAN NAHI enpresak Eusko Jaurlaritzaren standean parte hartuko duela, izan ere, gutxieneko enpresa kopuru bat egon behar da hori egiteko. Eusko Jaurlaritzak izena ematearen onarpena jakinaraziko du.

ENPRESAK FAKTURA JASO ETA GERO, HAU DA, EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO PABILOIAN SARTU DELAKO JAKINARAZPENA JASO ETA GERO, PARTE HARTZEARI UKO EGITEN BADIO, ORDAINDUTAKOAREN %100 GALDUKO DU.

Halabeharrezko kasuetan baino ez, antolakuntzak eskubidea erreserbatzen du enpresak aurkeztutako arrazoiak baloratzeko eta, behar bada, ordaindutako zenbatekoaren ehuneko bat itzultzeko.

Enpresek ordaindutako zenbatekoak itzultzeko kasu hauek baino ez dira kontuan hartzen:

- Enpresa erakusleek eskatutako gunea Azokaren Antolakuntzak Eusko Jaurlaritzari esleitutako gunea baino handiagoa bada, hautatu ez diren enpresek eskubidea izango dute aurrez izena emateko kuota itzultzeko.
- Eusko Jaurlaritzak halabeharrez edo nahiko partaiderik ez dagoelako parte hartzea bertan behera uzten badu, enpresek eskubidea izango dute ordaindutakoaren %100 jasotzeko.





Azokan eskainitako zerbitzuak

- 1) Espazioa Kontratatzea
- 2) Merkantziaren garraioa
- 3) Stand-aren dekorazioa

Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailak, HAZIren bitartez, hurrengo zerbitzuak eskainiko ditu:

ESPAZIOA KONTRATATZEA

Espazio promozional batekin parte hartuko da, eta hori enpresa ko-erakusle bakoitzerako 9 m²ko stand indibidual pertsonalizatuetan eta stand partekatuak izango dituen gune batean banatuko da.

MERKANTZIAREN GARRAIOA

Eusko Jaurlaritzak merkantziaren bidalketa bateratu bat antolatuko du esleitutako garraiolari ofizialak adierazten duen lekutik merkantzia standean bertan entregatu arte.

Garraiolariak egingo du merkantzia bidaltzearen kostuaren faktura eta enpresa erakusleak ordainduko du oso-osorik.

Bere garaian, esleipena duen enpresa garraiolariaren datuak emango dira. Eusko Jaurlaritza ez da arduratu taldeko bidalketatik kanpo bidaltzen diren produktuen segurtasuna ezta hartzeaz.

Muntatzen den egunean enpresak derrigorrez egon behar dira, esaten zaien orduan, merkantzia jasotzeko, eta beraien erakustokien dekorazioa amaitzeko, ekitaldia hasi baino lehenago. Adierazitako orduan merkantzia jasotzera agertzen ez diren enpresek zigorra jasoko dute.

STANDAREN DEKORAZIOA

Standa hornitzeko dekorazioa eta oinarrizko altzariak uniformeak izango dira EAEko standeko erakusle guztientzat, eta, edonola ere, hau egongo da:

Stand Indibidualarentzako: mahai bat eta 4 aulki, erakusmahaia, enpresa erakuslearen errotulua, konexio elektrikoa, biltegia eta hozkailua.

Stand partekatuarentzako: erakusmahaia eta taburetea, enpresako errotulua, erabilera komunitarioko bilera mahaiak, erabilera komunitarioko biltegia eta hozkailuak, erabilera komunitarioko harraska eta konexio elektrikoa.

*** Oharra:** Stand indibidual bakoitzean ez dira harraskak sartuko. Gune komun batean jarriko dira. Standetako oinarrizko altzarietan, elementu elektrikoetan edo elektrizitateko beharretan egin beharreko aldaketa oro, horien hazkundera edo aldaketa eragiten badu, ko-erakusle bakoitzak zuzenean kontratatuko du, eta bere gain hartuko du gehitutako kostua dekoratzailearekin, zeinak zuzenean fakturatuko dion zerbitzua.



Azokan eskainitako zerbitzuak

- 4) Kopa eta listu ontzi zerbitzua
- 5) Azokaren katalogo ofizialean sartzea
- 6) Standa mantentzeko lanak

KOPA ETA LISTU ONTZI ZERBITZUA

Eusko Jaurlaritzak koordinatuko du kopa eta listu ontzien kontratazioa, garbiketa barne. Zerbitzu horren finantzazioa %100koa da kopa eta listu ontzi lehen erretiluan. Enpresa ko-erakusleak elementu gehiago kontratatu nahi izanez gero, zerbitzuaren hornitzailearekin zuzenean kudeatu beharko du eskaria, antolakuntzari aditzen eman ondoren, eskaria azokan jasotzea koordinatzeko.

AZOKAREN KATALOGO OFIZIALEAN SARTZEA

Eusko Jaurlaritzak azokara joaten diren enpresa erakusle guztiak azokaren antolakuntzak argitaratzen duen katalogo ofizialean agertzeko egin beharreko tramite guztiak egingo ditu; bertan ekitaldiko erakusle guztiak agertzen dira erregistratuta (izena emateko fitxan jasotako datuak agertuko dira).

STANDA MANTENTZEKO LANAK (gabriketa, elektrizitatea, ura, etab.)

Eusko Jaurlaritzak bere gain hartzen ditu garbiketako zerbitzu orokorrak, elektrizitatea, ura, etab., eta, oro har, standa egoki mantentzeko lanak. Hala ere, enpresa bakoitzaren ardura izango da norbere standa garbiketa aldetik baldintza egokietan mantentzea.

